BIZITEGI ERAIKINA — HONDARRIBIA 9

D MAILA



Egilea eta data: Jose Maria Mujica; 1888

Deskribapena.
Kantoiko eraikina, jatorriz behe oina, lau goi oin eta teilatupeko oin bat, mantsardan, dituena. Harlanduzko fatxada, kantoiko alakan hormigoizko begiratokia duena (1926koa). Behe oineko baoak nabarmentzen dira, apainduta dauden puntu erdiko arkuak eta mistoak baitituzte. Jatorriz proiektu komuna Hondarribia 7rekin.

Babes erregimena.

1.- Erregimen orokorra.
Plan Berezi honen D babes mailan integratzearekin loturikoa.
Testuinguru horretan, fatxadaren tratamendua, bertako baoen konfigurazioa, instalazio, publizitate elementu, seinale eta eguzki oihal, eta abarren ezarpena plan berezi honetako ordenantza orokorretan ezarritako babes maila hori arautzen duten irizpideetara egokituko dira.

2.- Berariazko erregimena.
A. Babesetik kanpo utzitako kanpoko elementuak edo zatiak: 5. goi oina, mantsardatua.
B.- Fatxadako elementu edo zati iraunkorrak: harlanduzko elementuak.
C.- Esku hartzeko beste irizpide zehatz batzuk: fatxadaren eta behe oineko baoen konfigurazio bateratua, kantoia barne.